

## ARIKETAK

- 1 Zuzena(k) edo egokiena(k) aukeratu
- a) Denbora horretan, hiriak ekintzak **berrantolatu** behar izan zituen.  
b) Denbora horretan, hiriak ekintzak **birrantolatu** behar izan zituen.
  - a) **Billete** berdearen jaitsiera saihestezina zen.  
b) **Bilete** berdearen jaitsiera saihestezina zen.
  - a) Nafarroako musulmanak eta juduak arotz, jostun, **bordatzaile** eta zapatari izan ziren.  
b) Nafarroako musulmanak eta juduak arotz, jostun, **brodatzaile** eta zapatari izan ziren.
  - a) Izaera biziko gizona zen, bekozko iluna jartzen zuen, muturtuta... baina sakonean sinpatikoa zen, oso gizatiarra, **bihozbera**, onbera.  
b) Izaera biziko gizona zen, bekozko iluna jartzen zuen, muturtuta... baina sakonean sinpatikoa zen, oso gizatiarra, **bihozpera**, onbera.
  - a) Elizaren inguruan **zabalune** bat zegoen.  
b) Elizaren inguruan **zabalgune** bat zegoen.
  - a) **Esmoking** bat zeraman jantzirik, ongi baino hobeki ematen ziona.  
b) **Smoking** bat zeraman jantzirik, ongi baino hobeki ematen ziona.  
c) **Esmokin** bat zeraman jantzirik, ongi baino hobeki ematen ziona.
  - a) Pertsonaien **psikologia** marrazten duen nobela plazaratu du.  
b) Pertsonaien **sikologia** marrazten duen nobela plazaratu du.
  - a) Haren esanetan, txertoak tuberkulosiaren proteina bat du, eta horrek gogortzen du **inmunitate** sistema, infekzioari aurre egiteko.  
b) Haren esanetan, txertoak tuberkulosiaren proteina bat du, eta horrek gogortzen du **immunitate** sistema, infekzioari aurre egiteko.
  - a) Guda hartan gipuzkoarrek 12 **kanoi** kendu zizkieten nafarrei (nahiz eta, batzuen ustez, 2 besterik izan ez).  
b) Guda hartan gipuzkoarrek 12 **kainoi** kendu zizkieten nafarrei (nahiz eta, batzuen ustez, 2 besterik izan ez).
  - a) Oso tiraldi luzeak eta gogorrek egin zituzten Doneztebeko **jardunaldi** horretan.  
b) Oso tiraldi luzeak eta gogorrek egin zituzten Doneztebeko **ihardunaldi** horretan.
  - a) Izan zaitez apaizgorako deitzaile **kartsu**, adeitsu eta ausarta.  
b) Izan zaitez apaizgorako deitzaile **gartsu**, adeitsu eta ausarta.
  - a) Hor jardungo du Euskal Herriko mendietako tontorrak **ezeze**, kanpokoak ere zapaltzen.  
b) Hor jardungo du Euskal Herriko mendietako tontorrak **ez eze**, kanpokoak ere zapaltzen.

# A R I K E T A K

13. a) Baina, XIV. mendearen bukaera arte ezin liteke **hitze**gin Itzultzaile Eskolaz.  
b) Baina, XIV. mendearen bukaera arte ezin liteke **hitz e**gin Itzultzaile Eskolaz.
14. a) Nazio Batuen Erakundeak 30.000 **kanpadenda** bidali ditu.  
b) Nazio Batuen Erakundeak 30.000 **kanpaina denda** bidali ditu.
15. a) Galdera edo iradokizunik bazenu, eskertuko genizuke gure **postakutxa** elektronikora helaraziko bazenigu.  
b) Galdera edo iradokizunik bazenu, eskertuko genizuke gure **posta kutxa** elektronikora helaraziko bazenigu.  
c) Galdera edo iradokizunik bazenu, eskertuko genizuke gure **posta-kutxa** elektronikora helaraziko bazenigu.
16. a) Urederra ibaiak uharka eta **urjauzi** ederrak sortzen ditu.  
b) Urederra ibaiak uharka eta **ur-jauzi** ederrak sortzen ditu.
17. a) Bake prozesua abiatuz gero, **esku zabal** jokatu beharko da.  
b) Bake prozesua abiatuz gero, **eskuzabal** jokatu beharko da.  
c) Bake prozesua abiatuz gero, **esku-zabal** jokatu beharko da.
18. a) Kardinala eroaldi sakon haietako batean sartzen zenean, zaldi **odolbero** bat zela jartzen zitzaion buruan.  
b) Kardinala eroaldi sakon haietako batean sartzen zenean, zaldi **odol bero** bat zela jartzen zitzaion buruan.  
c) Kardinala eroaldi sakon haietako batean sartzen zenean, zaldi **odol-bero** bat zela jartzen zitzaion buruan.
19. a) Amak ere sekulako astindua hartu zuen, ikusi ninduenean kapela barik eta erabat **buru-soil**.  
b) Amak ere sekulako astindua hartu zuen, ikusi ninduenean kapela barik eta erabat **burusoil**.  
c) Amak ere sekulako astindua hartu zuen, ikusi ninduenean kapela barik eta erabat **buru soil**.



Aukeratu aurkaritzako lokailurik egokiena: *ordea, ostera, berriz, aldiz*

1. Hori horrela dela esango dit nork edo nork, eta hala dirudi; ez da, \_\_\_\_\_, alferra nire nekea.
2. Hara hemen bazkaria!  
-Ez daukat \_\_\_\_\_ gogorik.
3. Asiako taldeek galdu zituzten norgehiagokak: Japoniak Frantziaren aurka galdu zuen; Koreak, \_\_\_\_\_, Alemaniaren aurka galdu zuen.
4. Dirurik ez du; poz-pozik bizi da, \_\_\_\_\_.
5. Gizona itolarrika hasi zen; sugea, \_\_\_\_\_, uhinka zebilen, harro.

# A R I K E T A K

## 3 Berridazketak: *moduan, gisa, bezala, legez*

1. Hor dabilta, zaldi hezigabe bat bezala, aztalka eta puzka.  
\_\_\_\_\_ gisa \_\_\_\_\_.
2. Harri bat legez, hotz eta gogor gelditu nintzen.  
\_\_\_\_\_ moduan \_\_\_\_\_.
3. Noiz ikusten ziren ume mukizuak gau eta gauerdik kalean barrena, oraingo moduan?  
\_\_\_\_\_ bezala?
4. Arrain baten moduan igeri egiten jakin ez balu, ziur-ziur itoko zen.  
\_\_\_\_\_ legez \_\_\_\_\_.
5. Harako olatuen artean galdu-gordean dabilen ontzi bat bezala.  
\_\_\_\_\_ gisa.
6. Kikili eta makala dabil, betiko moduan, gure Paula.  
\_\_\_\_\_ bezala \_\_\_\_\_.
7. Lumarik gabeko txoriaren gisa nago.  
\_\_\_\_\_ legez \_\_\_\_\_.
8. Zangoetarik galdua zenak egingen du jauzi oreinen gisa.  
\_\_\_\_\_ bezala.
9. Lehengo moduan egingo dira gauzak?  
\_\_\_\_\_ bezala \_\_\_\_\_.
10. Jangar eta zurbil, zeharo mututurik zebilen Jose, luma berritzen dagoen txoria bezala.  
\_\_\_\_\_ gisa.

# SOLUZIOAK

1. a      11. a  
2. a      12. b  
3. b      13. b  
4. a      14. a  
5. b      15. b; c  
6. b; c    16. b  
7. a      17. b; c  
8. b      18. a; c  
9. a      19. a; b  
10. a     19. a; b

2. 1. ordea  
2. ordea  
3. berriz  
4. ordea, ostera  
5. aldiz

3. 1. Hor dabilta, zaldi hezigabe baten gisa, aztalka eta puzka.  
2. Harri baten moduan, hotz eta gogor gelditu nintzen.  
3. Noiz ikusten ziren ume mukizuak gau eta gauerdi kalean barrena, orain bezala?  
4. Arrain batek legez igeri egiten jakin ez balu, ziu-ziur itoko zen.  
5. Harako olatuen artean galdu-gordean dabilen ontzi baten gisa.  
6. Kikili eta makala dabil, beti bezala, gure Paula.  
7. Lumarik gabeko txoria legez nago.  
8. Zangoetarik galdua zenak eginen du jauzi oreinek bezala.  
9. Lehen bezala egingo dira gauzak?  
10. Jangar eta zurbil, zeharo mututurik zebilen Jose, luma berritzen dagoen txoriaren gisa.